


BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**PRIM 32****Egilea eta data: Lucas Alday, 1912****Deskribapena**

Lucas Aldayren 1912ko proiektua. Jatorriz, lau etxebizitza oin zituen, behe oinaz gainera; eta, ondoren, bi jasodura egin zituzten, lehena fatxadaren plano berean gauzaturia, alde zaharraren eta berriaren arteko inolako trantsizio elkargunerik gabe. Angelu zorrotzeko beste izkina bat osatzen du Prim kalearen sare formako bilbearen elkargunean eta, ziurrenik, mota horretako aurrealderik lerdinena da. Forma horren berezitasuna da eraikinaren osagai nabariena; batez ere, alakaren irudi konkaboa, balkoien kurbadurari eta horien bi aldamenetako begiratokiei kontrajarrita. Barruan, baoen multzo hori etxebizitza bakoitzaren pieza nagusiari dagokio: dekorazio zirkularreko egongela bat, dimentsio txikitakoa, baina zenbait orientaziotakoa. Oin bakoitza etxebizitza bakar batek hartzen du, fatxaden hornidura egokia, orubearen estutasunagatik. Etxebizitzaren argiztapena barruko patio triangeluar baten bidez osatzen da. Korridoreek ere patio horretara ematen dute. Oso-osorik hustu eta eraberritu da 2008-2011 urteetan gauzaturiko obren bidez.

Babes erregimena

1.- Babes erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena:

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: bi jasodurak (5. eta 6. goi oinak).

B.- Fatxadaren elementu iraunkorrak: harlandua.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.

D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.